

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/5/6 | 343

🌀 Txomin Garmendia eta Antton Izagirre

🌀 Tolosaldea Osasun Publikoaren alde

🌀 Miren Agur Meabe, Bitsa eskuetan

🌀 Aste iraultzailea Engels Ateneoan

## Xabier Amuriza

“Lazkao Txiki  
nolako  
artista  
zen ikusiz  
goatu  
ahal  
izango da”



🌀 Euskarak zein politika behar du Tolosan?


BOZKATU



Jokin Bildarratz

Tolosa Tolosa  
tolosa tolosa

**ONENA EMATEKO GARAIÀ**



aldama\_tapia  
aholkularitza

Foruen Etorbidea\_7  
20400\_TOLOSA Gipuzkoa  
Tel\_943 650 375  
Faxa\_943 655 206  
[gtolosa@aldamatapia.com](mailto:gtolosa@aldamatapia.com)  
[www.aldamatapia.com](http://www.aldamatapia.com)



mó  
HAPPY  
lens  
zoriontasun erantsiarekin

Condicions: Promoció de 2013/2014. Limitada a 2000 unitats. Campanya de promoció de 2013/2014. Limitada a 2000 unitats. Campanya de promoció de 2013/2014. Limitada a 2000 unitats.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
Helbidea: Nafarroa etorbidea,  
6-behea.  
20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Telefonoa: 943 655 004  
Faxa: 943 654 983  
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
Webgunea: www.galtzaundi.com  
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.  
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpuru, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague  
Banatzaileak: Olatz Garmendia  
Juankar Arregi  
Idazkaria: Nora Olano  
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.  
Diseinua: Zigor Agirrezabala  
GOTIK  
Azala: Galtzaundi  
Inprimategia: Antza.  
Tirada: 5.000 ale  
Lege gordailua: 55-906/91  
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO  
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena

non < er



## Erreportaia: Euskarak zein politika behar du Tolosan?

Hala galdetu diegu ordezkari politiko ezberdinei eta ondoko lerroetan jaso ditugu beraien iritzia. Ezarritako karaktere kopurua muga izaten da sarri azaldu nahi den guztia esateko. Horregatik, hitzordua egin dugu beraiekin guztiekin maiatzaren 19an, 18:30ean, Tolosako Musika Eskolan. Bertan, aldizkari honetan argitaratzen ditugun iritzi eta egitasmoetan sakontzeko aukera izango dute.

6-11. orrialdeak

Galtzaundik gonbidatuta, Xabier Amurizak datorren maiatzaren 13an, ostiralean, Tolosara ekarriko du Lazkao Txikiren bertsoen errezitaldia.

Elkarrizketa: Xabier Amuriza

14-16 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Txomin Garmendia eta Antton Izagirre	4-5
	Eskualdeko albisteak: Tolosaldea Osasun Publikoaren alde	12-13
	Irakurlearen begietatik: Miren Agur Meabe, Bitsa eskuetan	17
	Kultura: Aste iraultzailea Engels Ateneoan	18-19

## Autezkundeak **badatoz**



**Txomin Garmendia**  
Bertsolaria

### 1.-

Bi milla ta amaikagarrena da aurtengoz daukaguna, maiatz illaren ogeita bia igandez datorkiguna. Gizalegezko eginkizun bat auteskundetari deguna; botoan bidez alkate jaunak aukeratzeko eguna.

### 2.-

Alkate jaun da zinegotziak komeni diran neurrian, erritar danak gertatzen gera jende orren bearrian. Gure botoa izan dedilla kontzientzi ederrian; gidari onak izan ditzagun gu bizi geran errian.

### 3.-

Gero emaitza jasoko bada erein bear da azia, bakoitzak maite dun lur artantxe, ez dago galerazia. Da boto geien ditun arengan agindutzeko grazia; lege oietan oñarritzen da egizko demokrazia.

### 4.-

Begira dezagun basarrira, begira dezagun kalera, diktaduraren lotura ura izan zan gure galera. Zorionean sartuko giñan demokrazian legera; erriak zenbat ondu zaizkigun konturatutzen al gera?

### 5.-

Basarri bide lokaztu aiek agurra eginda daude, atariraiño joan-etorritan kotxean oituak gaude. Adibide bat bezela noski, esan bearko det aure: erri txikienik gaur ez dagola prontoi ederrikan gabe.

### 6.-

Danan gustorik ez dala egin nunnai aitor genezake, bestela gure erri maite au zerua izango litzake. Alkate batek beti ez dauka uste dan ainbeste pake; amabi urtean izan dan onek zerbaite esan lezake.

### 7.-

Lazkao Txiki zanak etzuan aldika izaten bromik, batean auxe kantatu zidan ondo pentsatzen egonik: "Orain artean i Txomin ez dek izandu alkate onik, aurrera ere ez dek izango iñun agintzen dagonik".

### 8.-

Egi galanta esan zuala ezin liteke ukatu, agintzen dunak berekin bai du konta ezin ainbat pekatu.

Anai-arreba biotzekoak gauz batekin konturatu: emen santurik ez dago eta ezin dala aukeratu.

### 9.-

Beste arazo bat aipatuko det eta edozeiñek daki, partidu berri bat nai genduke da bada milla aitzaki. Pakea nai du, "Sortu" izena berarengan daramaki; txarra ta ona botoan bidez bear litzake erabaki.

### 10.-

Aspaldi ontan eutzyaigu palta pake on baten eskerik, Jaunak emandako biziarekin ez daukagu jolasterik. Gorroto mende ez bedi bizi zarrikan eta gazterik; gogorkeriak ez du ekarriko gogorkeria besterik.

### 11.-

Auteskundeak premizko dira boto ematera goazen, gizalegea ori degula kontura erori gaitezen. Gurea beintzat izan dedilla errian alde ain zuzen; gure izkuntza eta oiturak maiteak izan daitezen.

### 12.-

Aldundin dauden gizonak ere botoan bidez jarriak, berak zuzendu bear dituzte errietako premiak. Bear bada Auteske auetan izan litezke berriak; izan daitezela edertutzeko Gipuzkoa ta erriak.

## Bagoaz

Horregatik, Ezker abertzalearen hausnarketa eta estrategia politikoa berriarekin demanda horri bide eman nahi izan zaionetan, ETAK bere kabuz sueten iraunkor eta egiaztagarriaren bidez konfrontazio armatuari behin betiko amaiera emateko urratsak ematen ari denean, gehiengo soziala eta politikoa Gernikako akordioaren bidez prozesu honetarako baldintza demokratikoak jarri dituenean, nazioarteko eragile zenbait prozesua errazteko bitartekoak jartzen ari denean...askori ulertzea zaila egiten ari zaigu nola eta zergatik Estatu Espainola den prozesu honi trabak eta eragozpenak jartzen ari dena. Zaila egiten ari zaigu ohartzea Estatu Espainolak nahiago zukeela konfrontazio politikoa eta armatua orain arteko terminoetan mantentzea bake eta normalizazio prozesuan aurrera egitea baino.

Zaila baina ez ulertezina. Estatu Espainolak ez du nahi Euskal Herrian bakerik, garipena baizik. Estatu garipena litzateke, gehiengo politikoa eta soziala soka motzean lotuta, jardun politikoa eskasetara mugatua mantentzea, eskaera eta demanda politikoa behin eta berriz kriminalizatuak eta judzializatuak izatea, espetxeak, atxiloketak eta torturen bidez jendartea beldurturik eustea, bizkartzain eta polizia kaleak okupatzea, espazio komunikatiboak betiko gatazka amaiezinen bidez lokaturik mantentzea. Estatu Espainolak onartu ezin duena zera da: bera, estrategia horretan

kokatzen den bitartean, bere baimen eta onarpenik gabe Euskal Herria eszenategi berri baterantz daraman prozesuak aurrera jarraitzea, badakielako behin mehatxuzko hesiak kenduz gero Herri honek aurrera egingo duela, estatuaren interresetatik haratago eta epe ertainera prozesu hori gelditu ezina bilaka daitekeela.

Europako beste Estatu demokratikoago bati buruz ari bagina, estatuak ere bere estrategia politikoa aldatze aldera joko luke beti ere herritarrei erabakitze eskubidea aitortzearen bidetik. Estatu Espainolari aldiz, tradizio demokratiko gutxioko estatua izaki, Katalunian edo Euskal Herrian eraikitzen ari diren aukera berriak digeritzea asko ari zaio kostatzen eta iritsiko da une bat non ekimen bateratu eta gehiengoaren gauzatzearen bidez beharturik izango dena kosta ala kosta urrats berriak ematera. Frogatzen ari garen bezala garai bateko Autonomia Estatuak gaiturik eta zaharkiturik gelditu diren baliabide politikoa dira eta horren aurrean, burujabetza, erabakitze eskubidea edota independentziarako bideak indartzen ari diren aukera politikoa. Horren lekuko dira Kataluniako herri askotan eta azkena Bartzelonan egin den erreferenduma eta berriki Euskal Herrian "Argi berdea Independentziari" lemapean Baigorri eta Gernikan ospatu berri dugun Aberri Eguna.

Ez dago beste biderik, Euskal Herriari bere bidea egiten ustea baino, eta jendarteak erabaki



Antton Izagirre  
Irakaslea

Azken urte bete honetan, hemendik eta handik azpimarratu izan da behin eta berriz ziklo politikoa berri batean aurkitzen garela eta ziklo berri honek bake eta normalizazio politikoa perspektiban jarriko duela Euskal Herriko jendartea. Esan nahi baita, aldi politikoa honetan konpromiso eraginez Euskal Herrian eta Estatu Espainoan, elkarren aurkako indarkeria eta bortxazko gatazketan trabaturik egotetik, soilik politikoa diren bideetatik, dialektika eta konfrontazio politikorako jauzia egiteko borondateak gailentzen ari direla. Azken batean pentsa daiteke hori dela urte luze hauetan gehiengo politikoa sozialak eta orotar euskal jendarteak exijitu eta eskatu izan duen une eta aukera politikoa.

dezala zer nahi duen. Independentistok ontzat emango dugu Herri honek erabakiko duena. Prest ote dago Estatu Espainola erabakia edozein dela ere onartzeko? Hori da demokrazia, ez besterik.

# Euskarak zein politika behar du Tolosan?



Hala galdetu diegu ordezkari politiko ezberdinei eta ondoko lerroetan jaso ditugu beraien iritziak. Ezarritako karaktere kopurua muga izaten da sarri azaldu nahi den guztia esateko. Horregatik, hitzordua egin dugu beraiekin guztiekin maiatzaren 19an, 18:30ean, Tolosako Musika Eskolan. Bertan, aldizkari honetan argitaratzen ditugun iritzi eta egitasmoetan sakontzeko aukera izango dute.

Euskara hizkuntza nagusia, bilinguismoa,... ondoko testuetan irakurriko dituzun hitzetariko batzuk dira. Ziurrenik mahai-inguruan ere behin eta berriz aterako dira, iritzi bat edo bestea azaltzeko.

Halaber, herritarrek nahiz moderatzaileak gai beraren inguruan egindako galderak erantzun beharko dituzte. Beraz, ondoko testuak irakurri hausnartu eta barne gogoetak maiatzaren 19an plazaratu.

Erredakzioa

# ANTZA



Baserriko produktu naturalak  
Mahala baserria • LEABURU  
Tel.: 943 673 499



Osagaiak  
Desarrolloak  
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199  
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO  
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10  
TOLOSA  
Tel.: 943 655 577



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa



**Iñaki Irazabalbeitia,**  
Aralar

Tolosa eremu euskaldun batean dago eta euskarak izan behar du Tolosako hizkuntza ohizkoa, gizarte-sareetan erabiltzeko dena.

Lehenik eta behin Tolosak UEMAko kide bihurtu behar du eta testu-inguru horretan politika eragingorak bultzatu.

Kanpotik etorri berrien kasuan izan ezik, euskararen gizarte normalizazioaren arazo nagusia Tolosan ez da herritar gehiagok euskara ikastea, herritarrek eta erakundeek erabiltzea baizik. Tolosarren % 85a euskalduna edo ia-euskalduna da, baina kale erabilera % 46koa da. Belaunaldi berriek euskaraz badakite; usa

dezen eta seme-alabei transmiti diezaieten dira erronkak. Horrek ez du esan nahi jakina helduen euskalduntzea eta alfabetatzea baztertu behar direnik eta euskara ikastea lagundu eta sustatu behar da. Lehenetsuna erabilera bultzatzean dago.

Erabilera bultzatzeko, umeei eta gazteei begira bereziki, udalak aisialdian, kulturean eta kirol-alorrean egiten eta eragiten duen eskaintza euskarazkoa izan behar du ia osorik eta kalitatezkoa. Puskatu behar da ikasi/euskara bikotea eta dibertitu/euskara bikotea indartu.

Udalaren eragin-esparru geratuena eta irisgarriena udalaren

beraren funtzionamenduarena da. Hor gabeziak ditu udalak. Udalaren lan-hizkuntza osorik euskara izatea da helburua. Dena dela, horretan politikariok izan behar dugu eredu. Gertatzen da ordea, menpekotasun estataleko partiduen ordezkariak erdaldunak direla eta horrek kalte egiten diola euskararen erabilera.

Etorkinak euskarara eta euskal kulturara hurbildu behar dira eta horretan beraiekin lanean dihardutenekin elkarlanean aritzea ezinbestekoa da. Beraien euskalduntzea ohizko bidetik izan behar du, hala ere.



**Ibai Iriarte,**  
Bildu

Bilduren ustez, tolosarron euskararen aldeko konpromisoa nabarmena da azken urteotako datuek argi eta garbi adierazten duten bezala: duela 20 urte ia 3.000 ikasle A eremuan, gaur egun 3 ikasle besterik ez, 3; duela 30 urte euskararen erabilera kalean %17koa, gaur egun %46koa. Ondorioz, hizkuntza politika aurrerakoi eta sendoa bideratzeko leku aproposa da gurea, euskarazko jardunean oinarritutako integrazioa eraikiz erantzun kualetatiboa emateko garaia dugu.

Horretarako, administrazioaren lan-hizkuntza euskarak izan behar du katalanera Katalunian den bezala. Tolosako herria

UEMan sartzea oso da komenigarria euskararen normalizazioan aurrerapausoak emateko tresna ezin hobea delako. Herriko gizarte eragileekin elkarlanean aritu behar dugu ezinbestekoa delako gizartearen partaidetza eraginkorra euskararen erabilera aurrera egingo badu. Honek guztiak gure hizkuntzaren erabilera areagotzea bideratuko du eta alorrez alor plangintza sektorialak egitea ahalbidetuko.

Etorkinen elkarrekin ere eskutik joan beharra daukagu, kohesio sozialaren bidean euskarazko lagungarri bilakatuz. Helduei doako euskara ikastaro egokiak eskaini behar dizkiegu bertako

hizkuntza ikastea edota orraztea debaldekoa behar duelako izan serioa izan nahi duen euskalduntze plangintza izatekotan. Euskarazko kultur adierazpideen plaza erreferentzia bilakatu nahi dugu Tolosa eragile egokiak ditugulako herrian eta indarra izan badagoelako euskarazko kultura nagusi izateko.

Hau guztia ezin da tolosarrak gabe bideratu, denon arteko elkarlanak ahalbidetuko du euskarazko aurrera egitea, benetako pausoak ematea. Maiatzaren 22an beraz, zuena da giltza!





**Jokin Bildarratz,**  
EAJ-PNV

Euskarak Tolosan aurrerakada handia eman du azken urteotan, bereziki "euskararen gaitasunari" dagokionez, horretan zerikusi handia (ez bakarria) izan du eskolak.

Geure asmoa da zuzen zu-

zenez "euskararen erabileran" eragitea, euskararen gaitasunak ez du berez euskararen erabilera bermatzen, ezinbestekoa bada ere, ez da noski nahikoa. Bide horretatik udalaren laguntzaz baliatuz euskara plan zehatzak egingo ditugu bai udal barruari begira (euskara lan hizkuntza administrazioan, kontratazio irizpideak, errotulazioa,...) bai kanpora begira (hedabideak, merkatalgoa, enpresagintza, elkartekak, aisialdia, etorkinak,...) gizarte eragileekin elkarlanean.

Bestalde, gaur egun gazte ugari ditugu euskara ama hizkuntza ez dutenak, eta euskaraz badakite ere, bere ohiko hizkun-

tza gaztelera da (gurasoetariko batek edo biek ez dakite euskaraz). Horiei begira programak garatuko ditugu, ea lortzen dugun euskararekiko atxekimendu emozionala, euskara erabili dezaten, eta arretrez begiratzeko kontua dela uste dugu.

Baita ere, "euskararen Teknologia" sortuko dugu, euskara eta teknologia berrien industria lotzeko, enplegua sustatzeko, ikerkuntza bultzatzeko, aplikazio informatikoak euskaraz burutzeko edo/eta herritarrak eta Udalarekiko harremanak hobetzeko, kontzeptu klabea izanik herri partaidetza sustatu eta sendotzeko.



**Ezker Batua**  
Berdeak

**Jose Maria Vieites,**  
EB

EBak beti defendatu izan du euskararen erabilera, gaztelanirekin berdintasunean, gurea bezalako gizarte moderno baten alor guztietan: politikan, ekonomian, gizartearen zein kulturaren. Baina euskararen erabileraren normalizazioa defendatzeak ez du esan

nahi helburu hau absolutizatzea eta bere izenean egin edo esaten den guztia baliozkoa izatea. Egon badaude zenbait proposamen, udal ordenantzak kasu, borondate politikoaren eta euskararen aldeko bereizketa positiboaren zabalkuntzaren izenean hiritarren hizkuntzarekiko gaitzustealortzen dutenak. Honekin informazioa eta formazioa jasotzeko eskubidea izanik baztertuak sentitzen diren zenbait herritarren euskararekiko nahigabea besterik ez da lortzen. Gauzak honela, Euskal Autonomi Erkidegoko aniztasun ideologiko, politikoa, sozial eta kulturalak bul-

tzatu behar gaitu hizkuntza politika hauen kontrako jarrerak onartzerara. Zentzu honetan, onartezina litzateke hizkuntza politika zehatz batzuekin ados ez egoteagatik "euskararekiko eraso" edo "euskararen etsai" modura aurkeztuak izatea. Edonola ere, Tolosako EBak beti lan egingo du euskara ikasi nahi duten herritar guztiei aukera emateko, bere esku dauden udal baliabide zein ekonomikoak ahalbidetuz. Tolosako EBarentzat euskararen normalizazioa ezinbesteko ikasgai eta aplikazioa izango da udal gizarte osatzen duten alor guztietan.

Garaian garaiko janariak eta arraikieta bereziak

Tel.: 943 671 920  
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

Paper manipulaziorako makina eraikuntza

Konponketa eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.  
Baratzondo D 26. Ibarra  
Tel.: 943 671 590.  
Faxa: 943 673 916

Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

Gozotegia Okindegia

**ECEIZA**

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



**Javito Telleria,**  
Hamaika Bat

Euskaraz bizitzeko esparruak eta aukera errealak bultzatzea izan behar da hizkuntz politikaren ardatza. Krisi garaian euskararen sustapenean egin beharreko inbertsioa optimizatu beharko da, eskaintzen diren eta eskaini nahi diren zerbitzuak murriztu ez daitezzen.

Beharrezkoa da euskararen erabilera bultzatzea, haur eta gazteen artean bereziki, eskolaz kanpoko aisialdi eta kirol jarduerak diruz laguntzen, eta euskarazko kalitatezko eskaintza kulturala herrira ekartzen zinema, antzerkia edo liburu eta bideoen publikazioaren bidez.

Euskara, gainera, integrazio tresna bezala erabili behar dugu, kanpotik etorri eta gure

herriaren parte diren pertsonen euskara komunikazio bide izan dezaten hizkuntza ikasteko baliabide intentsiboak eta flexibleak eskaintzea garrantzitsua da.

Sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak egiten jarraitu behar da, saltokietan, familia eremuan, enpresetan. Udalak euskalduntze planak egin ditzaten hitzarmenak sinatzen jarraitu behar du enprekin, udal euskaltegiak plan horien garapenean lagunduko duen. Eta, noski, udalean euskararen erabilera hobetzeko planari eutsi behar zaio eta udalari lotutako erakundeetan euskara lehenetsi eta sustatzeari duen balioa ematea beharrezkoa da.



**Pello M. Atxukarro,**  
PP

Tolosan ere euskara bizirik mantentzeko, euskaldunon hizkuntzaren erabilera bultzatu beharra dugula jakin badakigu; eta noski, Alderdi Popularreko hautagaiak udaletxean izango dugun arduraz jabeturik gure laguntza eskaintzen jarraitzeko prest, oraindaino bezelaxe. Beraz, PPko zinegotziak saiatuko gara, beste alder-

diekin batera, adostutako proposamenak martxan jartzen: lege barruan beti; pertsonen eskubideak kontutan hartuz; gaztelerakin –hau ere euskaldunon hizkuntza da– beharrezko bateragarritasuna mesprezatu gabe; eta honetarako ditugun baliabideen baitan.



**Jose Ignacio Asensio,**  
PSE-EE

Tolosarrok berezko bi hizkuntza ditugu, euskara eta gaztelera, eta biek elkarbizitza armonikoa behar dute izan, erabilpen politikorik egin gabe. Funts identitarioetatik libre, egungo euskal gizartearen izaera elebidunean arduztua eta akordioan oinarritutako elebitasunarekin konprometitu izango den politika euskaltzalea babesten dugu sozialistok. Euskarak eta gaztelarak ezin dute baztertuak izan, hizkuntzak herri-tarren zerbitzura egon behar dira eta ez alderantziz.

Euskaldunen eta Udalaren arteko harremanetan euskal-

dunen eskubideak bermatzeko nahiz udal langileen arteko lan hizkuntza euskara izateko egungo udal ordenantza nahikoa dela uste dugu.

Euskararen erabilpena normalizatzeko funtsezkoena hezkuntza sistemaren bitartez belaunaldi berriek euskararekiko duten ezagutza eta alfabetizazioa da. Helduen alfabetizazioari dagokionean, Udal Euskaltegiaren bitartez egiten den esfortzua mantendu egin behar da.

Etorikinei dagokionean, hezkuntza alorretik, beste behin ere, egiten ari den esfortzua babestu egin behar da.

jarri zure  
publizitatea  
**Galtzaundi**  
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
publizitatea@galtzaundi.com  
943 655 004  
www.galtzaundi.com



ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA  
Tel.: 943 652 712

**BATXILERGOA**

**GUK LA SALLE BERROZPE ETA ZUK?**

**Matrikula**

Maiatzaren **11** ra

**2** tik **11** raiak barne

LaSalle Berrozpe

**LS★B**

Andoain

[www.lasalleberrozpe.com](http://www.lasalleberrozpe.com)



# Tolosaldea Osasun Publikoaren alde

Osasun Publikoaren Aldeko Tolosaldeko Koordinakundeak dagoeneko 11.000 sinadura eskuratu ditu Espezialitateen Anbulatorioa ixtearen kontra. Kopurua bizilagunen kezka adierazle da. Egonezin hori hobeto ezagutzeko nahiarekin koordinakundeari eman dio hitza Galtzaundik.

Naiara Roldán de Aránguiz



Osasun Publikoaren Aldeko Tolosaldeko Koordinakundearen baitan eskualdeko hainbat eta hainbat erakunde, elkarrekin eta mugimendu ezberdin baturik azaltzen dira. Koordinakundeak azken hilabeteotako gertakarien berri eman du: Tolosako anbulatorioan hainbat espezialitate-zerbitzuen kontsulak bertan egiteari utzi dio Osakidetzak

Asuncion klinika pribatura bideratuz –oftalmologia, urologia, digestiboa, fisioterapia murrizketa-.

Tolosaldean “osasuna pribatizatzeko joera argia” dagoela diote koordinakundeko kideek: “anbulatorioan egin daitezkeen zerbitzu asko Asuncionera eramane dituzte; Rafael Bengoa

Osasun sailburuak urte amaierarako anbulatorioa itxiko dutela zehaztu du, Asuncion Klinikak eskualde-ospitale bezala lan egingo duela argudiatuz”. Koordinakundearen nahia ordea ez da klinika pribatu batek eskualde-ospitale lana betetzea, eskualde-ospitale bihurtzea baizik. Izan ere, Tolosaldea Euskal Herri mailan eskualde-ospitale publikorik ez duen eskualde bakarra da, 65.000 biztanleen eragina izanik.

## Ordainketa Sistema

Koordinakundeak azaldu duenez gaur egungo egoeraren artean eta gutxira emango denaren artean azaltzen ez den alde nabaria dago; ordainketa sistema, alegia. Orain arte, Asuncion Klinikara bideratzen den zerbitzu mediko bakoitzeko (proba, kontsulta bakoitzeko) ordaintzen dio Osakidetzak klinika pribatu honi: “orduan eta zerbitzu mediko gehiago egin (gaixo bakoitzeko proba gehiago), orduan eta diru gehiago eskuratu”. Aurrerantzean ordea, biztanleriarekiko ordainduko dio Osakidetzak kupo bat klinika pribatuari; koordinakundeak gertatuko denaren aurrerapena salatzen du: “geroz eta zerbitzu gutxiago eskaini, geroz eta gastu gutxiago eta onura gehiago izango du Asuncionek”. Orain arte, zerbitzu medikuarekiko zegoen asebetetzea aldatu daiteke koordinakundearen esanetan: “enpresa pribatua den heinean onura ekonomikoa bilatuko du, industrian ulertu dezakegu baina osasun arloan ez da zilegi, filosofia erabat aldatzen da”.

netan: “enpresa pribatua den heinean onura ekonomikoa bilatuko du, industrian ulertu dezakegu baina osasun arloan ez da zilegi, filosofia erabat aldatzen da”.

## Euroa, publikoan eta pribatuan ezberdin

Galtzaundik elkarrizketatutako Osasun Publikoaren Aldeko Koordinakundeko kideak argi utzi nahi izan du, osasun publikora zein pribatura bideratutako diru-kopuru berdinak ez duela eragin berdina erabiltzaileengan: “publikora 10 euro helduz gero, 10ak zerbitzua hobetzeko erabiliko dira eta pribatuan ordea gutxienez 3 kendu behar dira, enpresaren onura ekonomikorako”. Gauzak honela, koordinakundeak argi utzi nahi du ez daudela Asuncioneko langileen kontra, pribatizazioaren aurka baizik; Asuncion publiko bihurtzearen alde daude.

## Manifestua eta mozioa

Osasun Publikoaren Aldeko Tolosaldeko Koordinakundea asteartero biltzen hasi zenetik atxikipen eta proposamen ugari landu ditu; tartean ‘Tolosaldea Osasun Publikoaren alde’ manifestua eta ‘Osasun Publikoaren aldeko Tolosaldeko Koordinakundearen mozioa’. Mozioa eskualdeko herri ezberdinetan onartu da, ondorengo azpimarratuz: “Osakidetzaren osasun sare publikoanbulatorioan, eskualde-



ko biztanle kopuruari dagokion moduan, espezialitate-zerbitzuen kontsulta guztiak bermatu ditzaten eskainiz. Tolosalderako eskualde-ospital publiko bat ezartzearen beharra, osasun-sare publikoak eskualdean duen hutsune nabarmen hau konponduz”.

**Hauteskunde atarian**

Hauteskunde atarian egonik koordinakundearen eskaera alderdi politikoek osasunaren inguruko euren Tolosaldeko

politika hautesleei argi azaltzea da. Horregatik, maiatzaren 5ean mahai-ingurua antolatu dute alderdi politikoekin. Horrekin batera, Tolosaldeko herri ezberdinetan sinadurak biltzeko azken eguna maiatzaren 7a izango da. Osasun Publikoari bultzada herrikoia emateko aukera izango da koordinakundeak maiatzaren 14rako antolatu duen manifestaldian. Hau, eguerdiko 12.00etan abiatuko da Triangulotik Tolosako kaleetan barrena.

**Osasun Publikoaren Aldeko Tolosaldeko Koordinakundeak kideak:**

Zahartzaro Duinaren aldeko plataforma, Osasun Publikoko langileak, Berdinbide Tolosako denbora-bankua, Amarotz elkarte, Ezker Abertzalea, ELA, LAB, CCOO, Arpegi, Bilgune Feminista, Bonberenea, EHNE, Euskal Herria Sozialista, Herria Abian, Ezker Batua, Tolosako Aralar, Gazte Independentistak eta UGT.

**Manifestaldia:**

Maiatzak 14, larunbata. 12.00etan. Tolosako Trianguloan.



**EUSKO JAURLARITZA**  **GOBIERNO VASCO**

INDUSTRIAREN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAIA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANGINACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

**imk**

**formazio zikloak**  
erdi eta goi mailako zikloak  
nekazaritza - itsas-arrantza

**Natura lanbide?**  
Zatoz Itsasmendikoira!

Nekazaritza eta itsas-arrantzarekin erlazionaturako lanbideetarako prestakuntza praktikan eskaintzen dizugu.

[www.itsasmendikoi.net](http://www.itsasmendikoi.net)

**Etorri gure ate irekietara!** maiatzak **11**  
16.00etan

IMK Arkaitze - IMK Derio - IMK Fraisoro - IMK Pasaia

	ERDI MAILAKO ZIKLOAK	GOI MAILAKO ZIKLOAK
<b>IMK ARKAITE (ARABA)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>LORAZAINTZA ETA LORADENDA ★</li> <li>NEKAZARITZA EKOLIZPEN EKOLOGIKOA</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO ENPRESEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA</li> </ul>
<b>IMK DERIO (BIZKAIA)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>LORAZAINTZA ETA LORADENDA ★</li> <li>NEKAZARITZA EKOLIZPEN EKOLOGIKOA ★</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>NATURA ETA PAISAA BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA</li> </ul>
<b>IMK FRAISORO (GIPUZKOA)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>LORAZAINTZA ETA LORADENDA ★</li> <li>NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO PRODUKZIOA ★</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>NATURA ETA PAISAA BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA</li> </ul>
<b>IMK PASAIA (GIPUZKOA)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA</li> <li>ITSASONTZETAKO MAKINEN ETA INSTALAZIEN OPERAZIOA, KONTROLA ETA MANTENTZE-LANAK</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>NABIGAZIO, ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA</li> <li>ITSASONTZETAKO MAKINEN ETA INSTALAZIEN IKUSKAPENA ETA KONTROLA</li> </ul>

# Xabier Amuriza

“Lazkao Txiki  
nolako artista  
zen ikusiz  
go~~z~~atu ahal  
izango da”


Galtzaundik gonbidatuta, Xabier Amurizak datorren maiatzaren 13an, ostiralean, Tolosara ekarriko du Lazkao Txikiren bertsoen errezitaldia. Bertsozaleentzat ekidin ezineko zita jarriarik bertsolari eta idazle bizkaitarrarekin bertsolaritzaz, kulturaz eta berak idatzitako ‘Euskara batuaren bigarren jaiotza’ azken liburuaz jardun da Galtzaundi.

Erredakzioa

Zerk bultzatu zaitu ‘Euskara batuaren bigarren jaiotza’ liburu idaztera?

Euskarak berak. Bizi guztian, beste asko bezala, euskara lan-tresna hartuta ari naiz. Aurkitzen dizkiodan hutsune batzuk edo aurreratu beharreko urrats batzuk planteatzen ditut. Batzuei ustez soluzio bat ematen saiatu

naiz eta beste batzuk planteatu bakarrik egin ditut. Asko aurreratu da, baina falta zaigunak kezkatu egiten nau. Bizi garen inguru honetan, hizkuntza indartsuekin lehiatu behar horretan, falta zaizkigun urratsak dira. Kriterio batzuk aldatu edo onartuz gero, erraz gainditu daitezke eta horiek aurkeztu eta



planteatzen ditut.

Batzuetan soluzioak ematen ditut; egitura batzuetako erlatiboari buruz edo lexikoan hiztegiaren ingurukoak. Oraingoz darabiltzagun kriterio puristak gaintitu eta mendebalde inguruko hizkuntza nagusiak batu edo merkatuan gehiago sartu beharra dago. Aditza problema handia da euskaraz. Bi premia nagusi planteatzen ditut, alde batetik erraztu egin behar da eta bestetik, laburtu. Nik praktikatzeko ditudan jarraibide batzuk ematen ditut.

#### Zer ikasi edo har dezakegu gurekin bizi diren bi hizkuntza indartsuetatik?

Ikasi, barneratu behar dugu, hizkuntza horiekin lehiatu behar dugu. Sintaxi aldetik euskarak dituen berezitasunak eta ezaugarriak galdu gabe, hizkuntza horiekiko hutsuneak hornitu egin behar dira, bestela ezin dugu lehiatu, ezin dugu konkpetiboak izan. Erlatiboari dagokionez, adibidez, erlatibo kasu batzuk bakarrik konponetzen ditugu eta beste esparru guztia airean, itzulinguruka, erdi zalantzan eta nebulosan daukagu, konpondu gabe.

Zibilizazio bakarra izango bagina, ez guke premiarik izango hori osatzeko baina inguruko hizkuntza 'potente' horiek osatuta dauden tokian, gu testu horien pare itzultzen eta idazten ari garenean, nahitaez, egitura hori hornitu egin behar dugu. Ez dago euskalunik beste hizkuntza indartsu bat behintzat bere baitan ez duenik, batzuek bat baino gehiago. Ezin dugu etengabe barne diglosia horretan, inferioritate horretan aurkitu; erdaraz normal esaten duguna euskaraz ezin esanda ezin gara ibili. Orekatu eta ber-

dindu egin behar da; egitura aldetik baliabideak berdintzen saiatu behar dugu. Lortu daiteke, ez kolpera, ez dekretuz.

Beste arlo bat, lexikoarena da; gure hiztegiaren oraindik kaos handian bizi gara. Gure inguruko hizkuntza nagusiek egiten dutena, elkarrekin konpartitzen dutena, merkatu batu horretan sartu behar dugu, iraungo badugu, maila horietan garatuko bagara. Purismoak eta puritanismoak euskaraz asko agintzen du. Horrela ezin dugu hizkuntza indartsu, 'potente' eta modernorik egin.

#### Nolako presentzia eta papera du hitanoak gaur egun, eta nolakoa izan beharko luke?

Hitanoa aditzaren barruan, nahiz eta afektiboki liburuak eta hitzaldiak ikusten ditudan, oso kontu marjinala da. Hitanoa erregistroa da, erregistro inportantea baina bere garrantzia askoz txikiagoa da. Problema egitura nagusian, erdiko ardatzean daukagu, aditzean. Aditzaren %50a ez da erabiltzen. %25a oso gutxi erabiltzen dute eta geratzen den %25aren erdia gehienek gaizki darabilte. Larria da, baina egoera hori da. Ondo erabiltzen den portzentaje txiki hori ere erosio arrisku etengabe dago.

Aditza, galtzen, apurtzen ari da; zaila delako, egitura oso konplexuak ditugulako, ia erabilezinak direlako. Zailtasun horiek guztiak izanik gainera gure aditza oso luzea da inguruko hizkuntzen aldean.

Hitanoa ez dakit salbatuko den, oraindik salbatzen ari da. Problema ez da hitanoa, problema erdikoa da, aditza. Testu laburrak behar direnean, luzeegia denez, praktikoa ez dela gaineratzen badiogu, arazoa bikoiztu

egiten da. Aditzaren sinplifikazioa joan beharko dugu, bide batzuk iradoki egiten ditut, baina ez daukat soluziorik. Laburtu eta erraztu behar den konbikzio argia bai baina nola izan behar duen... Ematen ez bazaio soluzio koherente, arrazoizko eta duin bat hitzunik puskatuko dute aditza. Aditz honekin ezin dugu munduan zehar ibili.

#### Bertsogintzak egin duen ibilbideaz zer iritzi duzu?

Adinez ere aurrera noa, ibilbide guztia ikustea tokatu zait. Euskararen alorraren barruan, arlo txiki horren barruan, bertsolaritzak arrakasta soziala dauka, zaleak ditu. Bertsolaritzak egin duen ibilbidea oso oparoa da, transmisioan ondo asmatu du. Hasi nintzenetik eta nire aurretik ere hasi zirenetik, ez da historia oso luzea; lehen txapela 80an irabazi nuen, 30 urte dira. Egin den ibilbidea izugarria izan da; egokitzea, modernizatzea, gaurkotzea, gaztetzea. Eskola gabeko jende, bertsolaritza klasiko, tradizioaletik bestelako egoerara pasa gara; gaur ez dago unibertsitario ez denik. Entzule aldetik ere bilakaera berdina izan da. Bertsolariek idatzi ere egiten dute, kantu hitzak, kantuak, diskoak egiten dituzte... Bertsolaritza fenomeno guztiz moderno bilakatu da eta esparru guztietara iristen da. Hori guztia gertatzeko, zerbaitek ondo funtzionatu du.

Dena den euskararen arloan, bertsolaritza oso esparru txikia da. Bere garrantzia du, arrakasta bat-batekoa duelako, baina bertsolaritza euskal kulturaren barruan bateltxo bat da itsaso handi horren barruan.


Aldakuntza sozialak ere asko gertatu dira; txapela irabazi nuenean, eta bertso eskolekin



URDAIKARIAK  
*Altuna*  
HARAKINAK

Korreoa, 39  
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA  
Gipuzkoa



kutxa

15



ARTE  
TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

[www.sartutasortu.blogspot.com](http://www.sartutasortu.blogspot.com)

Tolosa - Kale Nagusia, 16  
Tlf. 677 340 685

ZABALA  
DESGUAZAK

KUDEATZAILE BAIMENDUAK  
EU2/11/04



BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA  
TEL/FAXA: 943 671 790 -  
MUGIKORRA: 696 593 347

hasi ginenean hiru arazo nagusi planteatzen ziren: berezkoa ote zen ala jaio egin behar ote zen, -betiko topiko hori-; bigarrena emakumeak zer? eta azkena ia euskaldun berriek izan zezaketen.

Hiru puntu horiek 30 urtetan guztiz deuseztatu dira. Txapelduna emakume bat dugu, Maialen Lujanbio, euskaldun berriak asko dira, Bizkaiko Txapelduna euskaldun berria da, Xabi Paia; Arabako lehen txapelduna ere euskaldun berria izan zen. Urte gutxian topiko eta mito asko erori edo gainditu dira, zorionez. Bertsolaritzaren partaide izatean harrotasun handia daukat.

### Bertsogintzak egin duen ibilbidea eredugarri al da beste kultur espresioentzako?

Eredugarria izan daiteke baina ez da trukagarria. Bertsolaritza jarduera berezia da, konparatu ezin dena. Bertsolariok nahi eta nahiez elkarrekin kantatu behar dugu, bertsolaritzako kolektiboan elkarrekin harreman handian ibili behar da. Deitzen diguten tokira, deitzen dutenarekin joan behar dugu. Musikiariak ibilbide individuala egin behar du, ez du besteekin musika egin behar. Eguneroko jarduna oso ezberdina da. Herriz herri elkarrekin ibiltzen gara, ez sozialago edo jatorrago garelako, premia handiago dugu elkartzeko.

Bertsolaritza antolakuntza aldetik eredugarri izan daiteke. Ikus daiteke, begiratu daiteke, ia inbidia izan daiteke, baina ez da esperientzia trukagarria.

### Bertsolaritzaren 'boom'-ak zertan lagun diezaioke euskararen egoerari?

Bertsolaritzak zorte handia dauka; euskaldun berriak nahiko

erraz iristen dira halako espresio artistikoa ulertzera. Euskaldun berri batentzat, bertsolariak egokitzen baldin badaki behintzat, irisgarria da, edozein mailara egokitu daiteke. Alde horretatik, bertsolariak arrakasta lortzea, jendearengana iristea, sentimendua duen jende horren ulermenera iristea errazagoa da, musika heltzen den bezala. Poeta bat, idazle bat edo antzerki bat iristea zailagoa da.

Euskara dabilen eremuetan, eskoletan, plazetan, euskaldun gutxi egonik ere, bertsolaritza erraz ailegatzen da ahozko maila komunikatibo horretan dabilako. Entzuleak zerbait harraipatzen badu, oso atsegindurik, loraturik geratzen da, zaleak ere sortzen dira, ez noski era masiboan. Bertsolaritzarenganako halako begirune, estimu, maitasun bat erraz sortzen da. Euskara ikasten, lantzen ari diren toki horietara halako espresio jostari eta ludiko bat eramateko balio izan du eta hori guretzat zorte handia izan da.

### Euskaraz eta euskal kulturaz, bertsolaritzaz ari garela, Tolosaldea aipatuta zer datorkizu burura?

Tolosaldea, bertsolaritzatik gune maite eta maitagarri bat. Asko ibili izan naiz bertan. Gune horietan bildu izan diren euskaldunak, ez bakarrik bertsozaleak, une puntual batean bertsolaritzara gerturatu direnak, lagunak egin ditut, kariñoa hartu dut eta kariñoa zabaldu dut. Tolosaldea aipatzean, neure esparru laztan batetik noan sentsazioa hartzen dut. Urteetan ere aurrera noa, nahiko nostalgikoa naiz eta oroimenetik asko bizi naiz. Tolosa aipatzean, burura datorkit




81ean, Josu Zabala, Ertzainakeko musikaria eta biok, Tolosako iñauterietan gau oso bat kalean kantatzen egin genuena, mozorrotuta eta karretila batean soinujuolearekin eta altaboz batekin kantatzen. Izugarritzko korruak egiten ziren eta berehala 500 lagun edo gehiago biltzen zitzaizkigun. Han ikusi nindute nek askotan gogoratu izan didate. Oroitzapen horiek oso biziak dira, orain pasatzen naizenean ez da nostalgia bakarrik, berriro bizi izaten ditut.

### Galtzaundik gonbidatuta Tolosan egingo duzun emanaldiak, zer eskainiko digu?

Nik gozatuko dut gehien. Alde batetik, Lazkao Txiki jenio bat delako eta hori transmititzen gozatzen dudalako eta bestetik, lehengo lan ezagun batzuk eta beste batzuk berriak azaltzean, halako arte komun eta pasio edo grina komun baten inguruan bilduko garelako. Ilusio izugarria egiten dit.

Bertan Lazkao Txikiren jenioa ordu t'erdian entzungo da. Lazkao Txiki jenio bat izan zela jende

orok daki. Baina non daude haren bertsoak? Liburu handietan bilduta daude, baina nor joango da haien ikustera? Emanaldi batean bildu ditut, Lazkao Txikiren estiloa eta izate horren selekzioa eginez. Ehun bat bertso ordu eta laurden inguruko saio batean entzungo dira; Lazkao Txikiren alerik onenen selekzio bat gidoi baten arabera prestatua, eramana eta antolatua.

Lazkao Txiki ezagutu nahi duenak, ez berari buruz esaten direnak edo bere txistek, bera bertsolari moduan, bat-batean nolako artista zen ikusi eta gozatu ahal izango du. Saioan edo diskoan 'Lazkao Txiki, bat bateko mirakulua' aurkeztu ezik ezin da iritsi bere izaera eta batez ere bere artea ezagutzera. Ordu eta laurdenean entzungo da Lazkao Txikiren selekziarik onena. Entzulea minimo ki bertsozalea bada, hartzen duen gozamena izugarria da. Bertsolaritzak eman dezakeen onenarikoa da hori, Lazkao Txiki onenarikoa izanda, bere bizitza guztian egindakoaren onenen onena biltzen da. 



## Irakurlearen begietatik



Ione Gorostarzu  
Irakurlea

2000. urtean argitaratu zuen *Azalaren kodea* poema liburua idazle lekeitiarrak; geroztik beste hainbat esparru jorratu ostean, berriro itzuli zaigu poesiara euskal poesiaren larrosa, Miren Agur Meabe. Eta, itzuli, indartsu, ausart, lotsarik gabe itzuli ere. Izan ere, liburu hau eskuartean hartu eta irekitzean Miren Agur Meabe beraren bihotza ere zabaltzen zaigula ematen du. Aurrez aurre jartzen zaizkigu bere ahotsa eta bizipenak, ametsak zein beldurrak; eta badirudi idazlea bera ari zaigula hizketan, konfiantza osoz. Hori izan da, behintzat, nire irudipena poema hauek irakurtzerakoan, bat eta beste idazlea bera kontu kontari ari zaidala belarrira, barneko txokorik sakonenetarainoko gonbita luzatuz.

# Miren Agur Meabe, Bitsa eskuetan

Biluztasuna eta umeltasuna agertzen dizkigu liburuaren azaleko irudiak, eta horiek dira lerroz lerroko bidaian aurkituko ditugun sentazioak ere; orriz orri idazlea biluztu egiten da, eta batzuetan irakurleak ez du jakingo zein ari zaion hizketan, Miren Agur Meabe bera edota ni literarioa. Eta hurbiltasun eta agerikotasun horrek, moztorrik gabeko mintzo horrek, gozagarri egiten du irakurketa. Ni, behintzat, liluratu egin naute liburuko poema gehienek.

Formari dagokionez, berriaz, hiru zatitan banatzen da liburua; *La vie en rose*, *Harearen geriza* eta *Zapitxo intimoak*. Horietan bigarrena egin zait ezberdinena, eta baita hunkigarriena ere. Zati honetan gai mingarri bat hartu du hizketagai poetak; bere amaren galera.



Bertan agertzen dizkigu amarekin zuen erlazioa, oroitzapenak, honen gaixotasuna eta heriotzak sortutako gogoetak. Asko gustatu zait, eta aipagarria iruditzen zait, *Hobia poema*: honetan idazleak bere amari jarri dio ahotsa. Lehen pertsonan egiten du hizketa, biografia poetiko batean. Amaren

bizitzara eta irudira gerturatzeko gaitu poema horrek, eta baita, alabaren irudikoz, amaren begiradara ere; hots, amaren begietan bilatzen du idazleak ispilua, liburu honetan agertzen diren ispiluetako bat; *ispiluak ditut azalean, nire trakeak badu izan bere mintzoa*. Baina, *l'art de vivre*, egunak eguna aldean du, eta iristen da noizbait maite genuenari iltzaturik mantentzearen ezinean, harengana bisitan joatea ahazten zaigun eguna. Eta horrek berarekin dakar korapiloa barnean, denboraren joana denboraren etorrera bilakatzea... *zer da ba, heriotza distantzia hau ez bada?*

Liburuaren gainerako bi zatitan, berriaz, emakumearen nitetasuna ageri zaigu; bizitza erdia eginda, bere kezka; hilekoa desagertu, seme alabak hazi...

bere buruari so egiten dio idazleak, bere izatea bilatzen du, eta baita izate hau elikatzen duten harremanak ere, bilatu eta erakutsi, gozo gaziak dituen arakatzeko batean. Izan ere, biluztasun sensual batek bustitzen du liburua, bitsaren moduan hazi eta urtzen den gozamen intimo batek ziprizzintzen, baina sarri eremurik garratzenetan murgiltzen da, eskuetatik ihesean doan bits hori itsasoko urarena bailitzan, gaziagia, aukeran.

# Aste iraultzailea Engels Ateneoan

Euskal Herria Sozialistaren 5. urteurrena ospatzeko asmoz aldizkari marxista honek hitzaldi sorta antolatu du maiatzaren 9tik 13ra bitartean Tolosako Engels Ateneoan.

Naiara Roldán de Aránguiz



Maiatzaren 9-13 bitarteko astean, mugimendu iraultzaileen azterketa proposatuko du Engels Ateneoak: "marxismoaren ideiek eskaintzen diguten ikuspegia tresna bikaina da langileen eta gazteen mugimendu iraultzaileentzat, honek teoria praktikarako gida bat bezala hartzen baitu eta egungo gizartea sakonago ulertzeaz gain, hau eraldatzeko bidea argitzea baimentzen baitu", horrela diote aste iraultzaileko antolatzaileek.

Hitzaldien helburuari buruz erantzutean ondorengoa zehaztu dute Euskal Herria Sozialistako ki-deek: "Euskal Herriko gazteen eta langileon borrokan sozialismoaren ideiak bultzatzeko eta bide honetan aurrera jarraitzea animatzeko xedearekin" antolatu dituzte aipaturiko hitzaldiak. Gai ezberdinak landuko dituztela aurreratu dute: "horien artean sozialismoaren oinarri teorikoak, langile klasearen egoera eta iraganean zein beste herrialdeetan egun ematen ari diren prozesu iraultzaileak".

Tarte berezia izango dute egun ematen ari diren aldaketak herrialde arabiarretan eta aurretik herrialde latindar amerikarretan gertatutakoak ere: "Latinoamerikako masak zein herri arabiarretako masak euren herrietako burgesiaren eta inperialismoaren aurka ari dira borrokatzen, Europako beste hainbat herrialdeetako eta Euskal Herriko gazte eta langile askoren antzera".

Bestalde, maiatzaren 12an II. Errepublika garaian eta Gerra

Zibilean langile iraultzaren alde eta faxismoaren aurka borrotatu zirenak omentzeko intentzioarekin hitzaldi berezia antolatu dute Engels Ateneoan. Honetaz gain, Errepublikaren aldarrikapenetik 80. urteurrena betetzen dela aprobetxatuta omenaldia egiteko Federiko Engels Fundazioak Juan Ignacio Ramosen liburua-ren lehen bolumena argitaratu du, 1931-1939 bitarteko iraultza sozialista eta guda zibilari erreferentzia eginez.

18

**G•PUNTUA**

## Gipuzkoarrak G Puntuaren bila

Maiatzaren 8an abian jarriko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Saillkapen fasean, 76 bertsolari lehiatu arituko dira 20 saioetan zehar, azkena ekainaren 5ean Zumarraga-Urretxun ospatu bitartean. Guztira, 10 herriko bertsolaritzaren jokaleku papera beteko dute, tartean eskualdeko Alegia –maiatzaren 14an- eta Amezketak –maiatzaren 28an-.

2011ko txapelketak berrikuntza moduan herri bakoitzean bi saio ospatuko dituela aurkeztu du, goizez eta arratsaldez. Saio bakoitzaren artean bazkariak antolatu ditu Bertsozale Elkarteak bertsolari, bertsozale, parte-hartzaile eta bertso-eskolen arteko giroa sendotzeko. Bazkari hauek tarako zein bertso saioetarako sarrerak txapelketako webgunean baino ez dira salgai jarriko, www.gpuntua.com helbidean. Sarrera guztiak saltzen ez direnean soilik jarriko dira leihatilan salgai.

### Tolosaldeko saioak

#### Maiatzak 14. Alegia.

Inaxio Begiristain Kultur Etxea  
11.30 Iñigo Izagirre, Alaia Martin, Josu Igartua, Maialen Velarde, Imanol Lizarazu eta Oier Aranzabal

17.30 Joseba Barandiaran, Gorka Etxeberria, Manex Mujika, Ainhoa Mujika, Manex Mantxola eta Ane Labaka

#### Maiatzak 28. Amezketak.

Kultur Etxea  
11.30 Ibai Esoain, Mikel Olai-zola, Joseba Barandiaran, Gorka Etxeberria, Iñaki Apalategi eta Beñat Iguaran

17.30 Andoni Otamendi, Andoni Goitia, Iñigo Izagirre, Alaia Martin, Eñaut Uriarte eta Eneritz Arzallus

### 5 urteko ibilbide oparoa

Ezin ahaztu Aste Iraultzaileak Euskal Herria Sozialistaren 5. Urteurrena duela abiapuntu. Hori dela eta, Ibon Artolak, Euskal Herria Sozialistako kideak, bost urte hauen balorazioa egin du, hasierako helburua gogora ekarriz eta baita aurrerantzean lanean jarraitzeko duten intentzioa adieraziz ere: "sozialismoaren aldeko ideiak bultzatzeko eta defendatzeko sortu zen Euskal Herria Sozialista aldizkaria. Aldizkariarekin parte hartu dugun manifestazio, ikastetxe, fabrika eta antolatutako hitzaldietan jabetu gara langile eta gazte askok interes handia dutela ideia hauekiko". Hau Tolosaldean gain, Euskal Herrian barrena ere gertatzen da: "gero eta harpidedun gehiago dauzkagu eta honek guztiak hasi genuen lanarekin jarraitzea animatzen gaitu".

## Hitzaldiak

Lekua: Engels Ateneoa, Erremontari kalea. Tolosa.  
Ordua: 19.30

**Maiatzak 9, astelehena.** 'Amerika Latindarreko prozesu iraultzailea'

*Hizlaria:* Cesar Alcazar, Manos Fuera Venezuelako kide mexikarra.

**Maiatzak 10, asteartea.** 'Sozialismo utopikoa eta sozialismo zientifikoa' (euskaraz)

*Hizlaria:* Iker Otermin, Euskal Herria Sozialistako kidea.

**Maiatzak 11, asteazkena.** 'Langile mugimenduaren alternatiba erasoaren aurka' (euskaraz)

*Hizlaria:* Ibon Artola, Euskal Herria Sozialistako kidea.

**Maiatzak 12, osteguna.** 'Gerra zibila eta iraultza sozialista (1936-1939)'

*Hizlaria:* Juan Ignacio Ramos, Federiko Engels Fundazioko kidea.

**Maiatzak 13, ostirala.** 'Herri arabiarretako iraultza' (euskaraz)

*Hizlaria:* Aitzol Arribilaga, Euskal Herria Sozialistako kidea.



- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak  
(bat erositara beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia  
San Martin, 16  
943 425 886-943 420 187

Donostia  
Garibai, 8  
943 420 259-943 430 947

Tolosa  
Rondilla, 11  
943 670 615-943 671 149



hirukide


KALITATEZKO HEZKUNTZA  
TOLOSAN

943 670 311  
www.hirukide.org



## irakurri entzun Ikusi

Mea Culpa  
Uxue Apaolaza



Madriren bakandurik bizi da Lur, egun batean, iraganetik etorrira bezala, egunkari azal batean Mikelen argazki bat ikusi arte; gogora datozkio ahantziak nahi lituzkeen oroitzenak, nerabzaroko mamuak, konpondu gabeko ideologi auziak... Gurasoek Landetan duten oportetako etxera joatea erabakiko du, beka baten laguntzaz idatzi behar duen eleberria amaitzera, bidaia ikaskide ohi batekin egin behar badu ere.

Harpa airean  
Ane Artetxe (harpa)  
eta Patxi Gallego (ilustratzailea)



Harpa diskoa, harpa jotzen ikasteko metodo berria aurkezten duen diskoa. Ane Artetxe harpa irakasle donostiarrarengandik sortutako ekimena. Konposaketa klasikoak, doinu herrikoiak eta zinematik hartutako piezak jasotzen dira Harpa Airean diskoan. Era ludikoan eta entretenigarrian harpa jotzen ikasteko metodoa.

Amaren ideia  
Maidier Oleaga

Dokumentala. Luciak, Josek eta Alfredok, 80 urte baino gehiagoko adinduek, badeute batzen dituen gertakari latza: ume zirela Guda Zibila medio euren lurraldetik kanpora bidali zituzten. Betiko euren familietatik banatu zituzten, inoiz ez ziren jaio-terriera bizitzera itzuli. Hirurek Mexiko izan dute bizitoki. Bakoitzak erbestaldia modu ezberdinean bizi izan du. 61 urte beranduago Euskal Herrira itzuliko dira, atzean utzitakoarekin elkartzeko asmoz.

# hitzordua

Maiatzaren 6tik 20ra bitarteko

## Truke eguna

**Maiatzaren 8an, igandean, 10.00-14.00 bitartean, Larraulen.** Denbora bankuaren baitan antolatua. Irekia. Gauzak, denbora eta gaitasunak elkartrukatzeko merkatua, dirurik gabeko azoka. Behar ez duzuna ekartzeko eta behar duzuna eramateko aukera: liburuak, jostailuak, arropa, elektrogailuak,... Informazio gehiago izateko edo izena emateko bi bide daude: 943 693 930 telefono zenbakira deituz edo aitzondokodenborabankua@gmail.com helbide elektronikora idatziz.

giza izaeraren behatzailea da, eta bere arreta gizakiaren bihotz galdura bideratzen du, inguruan dituen intuizio musikalak birbiltzerakoan. Benito Lertxundik bizitzaren baitako ideia eta kontzeptuak erakarri egiten ditu, eta horietan oinarrituz sortzen ditu abesti zoragarriak, askotan bere xalotasunagatik eta garbitasunagatik hunkitzen gaituztenak.



beren egunerokotasunaren "voyeur" izango garelarik. Animalia hauen erreazio bortitzeak ikusteko aukera ere izango dugu. Ikusiak izan gabe ikusi. Baina pribilegio honek ordain bat ekar dezake berarekin... geure burua bertan ikustearena.

## Naturaldia

**Maiatzaren 6an, ostiralean, 19.30ean, Tolosako Topic Aretoan.** Inkak, momiak eta mendiak: goietako arkeologia eta zientzia dibulgazioa. Hizlaria: Constanza Ceruti arkeologoa. Aurkezlea: Lurdes Errazti, Aranzadiko antropologiako kidea.

## Dantza

**Zoo. Ertza dantza taldea.** Maiatzaren 13an, ostiralean, 20.30ean, Tolosako Leidor Aretoan. 10 euro. Zoo honek giza-ki talde bat espazio murrizt batean ikusteko aukera emango digu. "Habitat" berri honetan nola jokatzeko duten ikusi ahal izango dugu eta beraien ohitura eta jarreraren testigu izango gara. Esperimentu baten barne baleude bezala aztertuko ditugu gure babes kokalekutik,

## Inaugurazioa

**Maiatzaren 14an, larunbata, Tolosan.** Lorategi Iragankorren inaugurazioa.

## Bertsoak

**Bertso bazkaria + kontzertua.** Maiatzaren 7an, larunbata, Berrobin. Bide Ona elkartearen bertso bazkaria; Unai Muñoa, Ander Lizarralde eta Bixente Gorostidi bertsolariak. Ondoren trikipotea eta gauean 23:30ean, Ingo al deu?



## Kontzertuak

**Benito Lertxundi.** Maiatzaren 6an, ostiralean, 22.00tan, Tolosako Leidor Aretoan. 15 euro. Benito Lertxundi, zerbait bada,

# Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskualdeko ikaskuntzarekin erlazionaturako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Datu baseen elaborazioa (Access)	2011/05/04	50
Ingeles teknikoa	2011/05/09	40
Ordenagailua. Inguru eta mantenua	2011/05/09	40
Aire egokituko instalazioak	2011/05/09	40
Lan taldeen kudeaketa (adimen emozionala)	2011/05/09	40
TOLOSALDEA GMLHI - Ate Irekien Eguna	2011/05/10	4

Ikastaro gehiago ekaina bitartera: informatika, elektrizitatea, mekanika, etab.

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia  
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA  
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678  
Posta-e: [info@ikastn.com](mailto:info@ikastn.com)  
Webgunea: [www.ikastn.com](http://www.ikastn.com)

## Goardiako farmaziak

<b>Ostirala, 6</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	<b>Asteazkena, 11</b> Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	<b>Astelehena, 16</b> Ugarte M <sup>a</sup> T. Euskal Herria, 46 Ibarra
<b>Larunbata, 7</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa	<b>Osteguna, 12</b> Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	<b>Astearte, 17</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa
<b>Igandea, 8</b> Ugarte M <sup>a</sup> T. Euskal Herria, 46 Ibarra	<b>Ostirala, 13</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	<b>Asteazkena, 18</b> Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa
<b>Astelehena, 9</b> Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	<b>Larunbata, 14</b> Olarreaga I. (Korreo kalea, 2) Tolosa	<b>Osteguna, 19</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa
<b>Astearte, 10</b> Iturrioz I. Euskal Herria, 3 Ibarra	<b>Igandea, 15</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	<b>Ostirala, 20</b> Olarreaga I. (Korreo kalea, 2) Tolosa

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 654 737	Asunzion klinika
Medikua	943 652 339	(larrialdia)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 889 003	San Kosme San Damian
Medikua	943 683 361	geriatrikoa
Baliarrain	943 681 134	Udaltzaingoa
Medikua	943 683 361	Ur eta Argia (Tolargi)
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 683 361	Ur zerbitzuak (aberiak)
Osasun etxea	943 683 361	Iurreamendi egoitza
Ikaztegieta	943 683 361	Larrialdia, Suhiltzaileak
Medikua	943 683 361	DYA
Irura	943 683 361	Gurutze Gorria
Osasun zentroa	943 683 361	943 674 888
Tolosa	943 683 361	943 651 425
Anbulatorioa, larriald.	943 650 931	Ertzantza
San Esteban, hitzordua	943 006 800	Tolosa Gasa
		Lizartza
		Medikua
		Orendain
		Medikua
		Orexa
		Medikua
		943 682 228

Galtzaundi 343  
11ko maiatzak 6



Nafarroa etorbidea, 13-behea  
20400 Tolosa  
Mobila: 670 417 922  
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA  
**ZUEN  
TZART**  
*eskuz esku  
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA  
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET  
TEL. 943 650 359

**TINDATEGIA**  
**KATZ**  
Laskorain kalea • TOLOSA  
Tel.: 943 652 618

**ARALAR  
KIROLAK**  
Laskorain, 7 • TOLOSA  
Tel.: 943 654 916

taldearen kontzertua Begi Gorri gaztetxean.



## Antzerkia

**Poltsiko Antzerki Lehiaketa. Maiatzaren 6an, ostirala. Adunako Asvinenean, 22.30ean. 2. Saillapen eguna.** Bi infinito, Itxura faltsua, Gusano de luz, El Olentzero, Eguzkilore, Opera Pánica eta Triangle lanak. Artista gonbidatua: Samarkanda, sabel dantza.

**Maiatzaren 13an, ostirala. Adunako Asvinenean, 22.30ean. 3. Saillapen eguna.** Somos, Flexiones y reflexiones, Operación dragón amarillo, Maitetasuna, Rebelión en las tablas, Los hermanos que bebieron estrellas eta Mimo-neando lanak.

**Maiatzaren 20an, ostirala. Adunako Asvinenean, 22.30ean. 4. Saillapen eguna.** Anti-ero, Total Training chair, El leon y la cigala, Sorginkeriak, La década, Florencio Galdino eta Belleza lanak. Artista gonbidatua: Tzigana, dantza garai-kidea eskainiko du.

# Muxutruk

## Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta txerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingelesko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako tituluak daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protiesko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

## Etxebizitza

• 60m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Berazubini. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berri-tua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

• Bikote euskalduna baserri edo borda batean alokairuan jartzeko prest. 652 715 800

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m<sup>2</sup> eta erreforma egiteko. 620 129 295

## Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 laguntzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldea, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokaldea, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 68969112

# Horoskopoa

Maiatzaren 6tik 20ra arteko aurreikuspena



## aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Eragin ezkorreko elementuak ageri dira, hala ere, horrenbesteko energia izanda ez dira arazo bilakatuko. Enpresa berri hori martxan jartzeko indarrak gain irudimena ere lanean jarri beharko duzu.



## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Bizitzako aro garrantzitsua hasteko momentua, oztopoak baztertu beharko dituzu. Nekatuta egon arren, berezko energia zureganatzen hasi zarela nabaritu duzu.



## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Aldez aurretik igarotakoaren jarraipena, gailendutaz zenituen egoerak errepikatuko dira. Lanean emaitza baikorrak, proiektuak behar bezala hartuz gero behintzat. Leialki arituko zara baina gaizki-ulerturen bat sortu daiteke.



## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Intuzio ahalmen handia izango duzu, baina hunkiberatasuna alde batera utzi beharko zenuke. Esna amets egiteak zer dakarren badakizu eta... Helburuak eskuratzeko orduan kontrako gertakizunak aurrez aurre izango dituzue.



## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Gai garrantzitsu hori atzerapenez helduko da, ez zaitetz estutu, erabakiak hartzeko aukera helduko zaizu eta. Irabaziak izango dituzue. Maitasun kontuetan zure harrokeria agerian geratuko da.



## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Batzuetan harropuzkeriak duzun pertsona onaren irudia goibeldu egiten du. Kontu ezatsegin batek irainak sortuko ditu. Osasun arloan bere eragina izango du honek, kirioak dantzan ibiliko zara.



## libra

Irailak 23-Urriak 22

Egoeren aurrean iritzi lasai eta zentzuduna sortzeko gai zara. Boterea izango duzu egokia denaren alde aritzeko. Abian dauden proiektuek plazer intelektuala sortuko dizute.



## scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Indarrezko joerak inoiz ez dute fruitu onik eman, presioei bestelakoan egin beharko diezu aurre. Bazkari gehiegi izan dituzue azken aldian, dietan jartzea ez litzateke ideia txarra izango.



## sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Energiaz gainezka egonik, asmo handiko helburu horientatik borrokatzea ideia ona izan daiteke. Ikasketekin harremana duten gaiak ederki gailenduko dituzue. Epe luzerako kontuetan pentsatzeko unea heldu zaizu.



## capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Lan kontuak zehaztasunez burutuko dituzue. Egiten duzunaz ziur zaude baina hori besteei erakustea bestelako kontua da. Ez da zentzuzkoa zurean pausurik eman gabe geratzea.



## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20


Bi pentsaeren artean harrapatuta zaudete, korrontearen kontra egin beharko duzu. Maitasunak eta adiskidetasunak arrakasta ahalbidetuko dizute. Aukerak murrizten direnean bestelako baliabideak aurkezteko gai zara.



## piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Objetibotasunez jokatzeko ez zaizue erraza suertatuko. Eskuzabalegia zara eta ez diozu diruari behar adineko baliorik ematen. Finantza-aholkularia topatzeak ez lizuke kalterik egingo.





**ORIXETOLOSA**

Bigarren Hezkuntza Institutua  
Instituto de Educación Secundaria



# MUNDU ZABALERAKO ZUBIA

## Batxilergoak

Zientziak eta Teknologia  
Giza eta Gizarte Zientziak

**Irakasgaien  
Eskaintza Zabalena**

**943 65 13 87**

E-mail: 012980aa@hezkuntza.net www.orixe.net

**Aurrematrikula: Maiatzaren 2tik 11ra**



# ***SUPER EKO***

**SUPERMERKATUA**

*Oinezkoen eremua  
Erosketak etxera  
eramateko zerbitzua*



*Enkarguak etxera  
eramateko izena emanda,  
zerbitzua dohainik*

**Zumalakarregi, 4  
943 65 09 01  
Tolosa**

**BOZKATU**



*Markel Olano*



*Gipuzkoa* Gipuzkoa  
gipuzkoa gipuz

# **ONENA EMATEKO GARAIA**



# HILETAREN BALIOA

Txina Inperiala



**40** URTE eman zituzten Qin Shi Huang enperadorearen hilobia eraikitzen

**2,13** Km<sup>2</sup> hartzen ditu guztira mausoleoaren azalerak

**700.000** LANGILE aritu ziren hori eraikitzen

**7.000** IRUDI lurperatu zituzten enperadorearen ondoan, benetakoa tamaina dute eta terrakotaz eginak dira

Funeraria Vascongadan ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren **Hileta Zerbitzu Packak** eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna,  
baina laguntza eskainiko dizugu dena errazagoa izan dadin.



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

25 años  
en TOLOSA

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com) 24 orduko zerbitzua: 902 40 29 00

